

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Erdi Aroko Heriotzaren Izarra

ESKOZIA, 1449KO EKAINA. Filipe III.a Burgundia-koak kanoi erraldoi bat eraikitzeke agindua eman zuen, ingelesek eskoziarren aurka abiatu zuten gerran haiek izutu eta mendean hartzeko asmoz. Edo horixe dio behintzat arma itzelaren jatorriari buruzko teoria onartuenak. Garai hartan ez zioten izen berezirik eman, baina VII. mendetik aurrera Mons Meg izenez egin zen ezagun. “Mons” kanoia probatu zuten kokaguneetako baten izena da, eta “Meg” Danimarkako Margareten omenez jarri omen zioten.

Kanoia osatzeko hiru urte eta erditik gora eta 1.536 libera –garai hartan, dirutza– behar izan

zituzten. Arma 4,6 metro da luze eta ia zazpi tona pisatzen du. 519 milimetroko kalibrea izanda, 183 kiloko balak ehunka metrotara jaurtitzeko ahalmena zuen. Burgundiako dukearen asmoa tiro bakarraz edozein harresi suntsitu eta etsaia mendean hartzea zen. Eta tiro gutxi eginda horretarako gai zela erakutsi zuen, Nigel Tranterren arabera: historialari eskoziarrak Threave gazteluko zulo ikaragarriak kanoiak eragin zituela uste zuen. Beharko, tiro egin ondoren kanoiak ordubete baino gehiago behar baitzuen hoztu eta berriro tiro egiteko prest egoteko. Baina Mons Meg osatzerako gerra amaitua zen.

Horrez gain, garaiko arma suntsigarriena pisutsuegia zen praktikan. Gutxienez 50 pertsona behar ziren hura muntatu eta erabiltzeko, eta hogeitik gora mando batetik bestera mugitzeko; beti ere, distantziak oso luzeak ez baziren. Horrenbestez, zortzi urte baino ez zituen eman zerbitzuan eta gutxitan erabili zuten, kostu izugarriari etekinik ia atera gabe.

Hala Burgundiako dukeak kanoitzarra Eskoziako James II.a erregeari eman zion opari. Handik aurrera, Edinburgoko gazteluko zeremonietan soilik erabili zuten, azkeneko 1680an, Albany eta Yorkeko dukeari ongi etorria egiteko.

Star Wars sagan, Darth Vaderrek eta Enpedoreak Heriotzaren Izarra asmatu zuten etsaia kolpe bakarrean suntsitzeko. Eta film hura egin baino 500 urte lehenago Filipe Burgundiakoa antzeko zerbaitetan saiatu zen, “alde ilunaren” ideia fikzio hutsa ez zela erakutsiz. Bietan, arma suntsitzaileak, azkenean, ez ziren erabakigarriak izan.



Mons Meg kanoi eskerga Edinburgoko gazteluan bisitatu daiteke gaur egun.

Arrastoak

Diru faltsua agerian

MONETA FALTSUAREN HISTORIA diruaren beraren historia bezain zaharra da ia. Horregatik, datorren urteko maiatzera bitartean *Moneta faltsua: Antzinarotik eurora* erakusketa ikusi ahal izango d Kataluniako Arte Museo Nazionalean. Garai guztietako iruzurrezko piezak bil-tzeaz gain, garai bakoitzean agintariak

faltsifikazioak nola jazarri dituzten eta iruzurgileek zer tresna eta teknika erabili izan dituzten azaltzen du erakusketak (argazkian, txanpon faltsuak egiteko moldeak). Azkenik, faltsifikazio berriago bat ere hartu dute kontuan: bildumagileak engainatzeko egiten diren antzinako txanponen kopia modernoak.



WWW.TESORILLO.COM